

LEGAZPIKO
UDALA

KORONABIRUSAREN EGUNEROKOA

2020 /05/ 17



LEGAZPIKO
UDALA



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....

ALARMA-EGOERA DEKRETATU AURRETIK 3

2020ko martxoaren 10a 3

2020ko martxoaren 12a 4

2020ko martxoaren 13a 4

2020ko martxoaren 14a 5

ALARMA-EGOERA DEKRETATU ONDOREN 6

MARTXOAREN 16TIK 21ERAKO ASTEA..... 6

MARTXOAREN 23TIK 29RAKO ASTEA 12

MARTXOAREN 30ETIK APIRILAREN 5ERAKO ASTEA 18

APIRILAREN 6TIK 12RAKO ASTEA..... 22

APIRLAREN 13TIK 19RAKO ASTEA..... 25

APIRLAREN 20TIK 26RAKO ASTEA..... 28

APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 3RAKO ASTEA 32

MAIATZAREN 4TIK 10EKO ASTEA..... 36

ZUZENDARITZA, MAIATZAREN 11 41

ALARMA-EGOERA DEKRETATU AURRETIK

2020ko martxoaren 10a

✓ **Udal zerbitzuetan etxetik lan egiteko aukera aztertzea.**

- Euskaltegia**:** Moodle plataforma egokitu da klaseak on-line eman ahal izateko.
- Bulegoak**:** kudeaketa ekonomikorako eta espediente administratiboak kudeatzeko programa informatikoa prestatu da, etxetik sartu ahal izateko. Etxebizitzetan birus informatikoekin egon daitezkeen segurtasun-arazoak konpondu dira.

✓ **Krisi batzordea sortzea**



Krisi batzordea

- Idazkaritza
- Kontu-hartzailetza
- Kontratazioa eta langileak
- Alkatetza

- **Kontratu publikoak**

  Sektore Publikoko Kontratuen Legea aztertu ondoren, itxi aurretik honako urratsak eman behar ditugula ondorioztatu da:

  ❖ Alkatetzak Gobernu Batzordearen esku utzitako eskumenak bereganatu behar ditu, Alkatetzaren Dekretuen bidez administrazio-kontratuak eteteko prozedura bizkortzeko. Udalak kontratuak etetea erraztuko du enpresa kontratistei kalte-ordainak ordaintzeko.

  ❖ Txosten eredu bat egingo da, kontratuak eteteko eredu gisa erabil daitekeena. Txosten eredu hori deuseztatu beharreko kontratu bakoitzera egokituko da ondoren.

- **Telelana**

  ❖ Ikastetxeak itxi ondoren etxean geratu behar duten seme-alaba adingabeak dituzten udal-langileei etxetik lan egiteko aukera eskaini zaie.

2020ko martxoaren 12a

1. Gizarte-zentroa ixtea


Comité de crisis

Gizarte-zentroa ixtea sustatu da, adinekoen arteko harremana murrizteko helburuarekin; izan ere, koronabirusaren aurrean kolektibo ahulena da bera.

- Gizarte-zentroa ixteak berekin dakar kafetegiko kontratua etetea.
- Mantendu egin dira zerbitzu hauek: Eguneko Zentroa, ileapaindegia, podologia eta mendekotasunaren balorazioak.

2. Meazti Etxea

- Garbiketaren lehen errefortzua: asteko 12 ordu gehitu dira desinfektatze-lanetarako.
- Laguntzaileen errefortzua mantentzen da, asteko 17,5 ordu gehiago (astelehenetik igandera); neurri hori 2019ko azaroaren 8an hartu zen, igogailua jartzeko lanak hasi zirenean.
- Sarreran mahai bat jarri da eta, bertan, erabili eta botatzeko zapiak, paperontzia, hidrogela, eskularruak eta termometroa, sartu eta irteten diren pertsonen datuen erregistroekin batera, baita horien tenperaturarekin ere.
- Modu berean, solairu bakoitzean mahaiak jarri dira eta, bertan: erabili eta botatzeko zapiak eta paperontzia.

3. Tipi Tapa

- Abisu berria jaso arte, bertan behera geratzen da asteroko Tipi Tapa ekimena.

2020ko martxoaren 13a

1. Kiroldegia eta kultur etxea ixtea


Comité de crisis

Ikastetxeak itxi ondoren, adinekoek eta ikasleek erabiltzen dituzten zentro publikoak ixtea erabaki da. Hau da, kiroldegia eta kultur etxea.

Kiroldegia ixteak 12 kontratu etetea dakar berekin: ikastaroak ematekoak, harrerakoa eta sorosleena.

2. Euskaltegi on-line

Euskaltegiak klaseak on-line ematen hasi da Moodle plataforma erabiliz.

3. Udaletxeko lantokietan hartutako neurriak

Dekretu bidez onartu dira langileentzako aparteko prebentzio- eta euste-neurriak.

2020ko martxoaren 14a

1. Haur-parkeak itxi dira; parkeetan jendea dabilela ikusita, udaltzainek zintarekin itxi dituzte.
2. Udaltzainek Urtatzazahar parkea hustu behar izan dute, bertan 15 ibilgailu baino gehiago zeudela ikusita.
3. Eguneko zentroa itxi da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailak hartutako erabakiagatik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren jarraibideei jarraituz.

463/2020 Errege-dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19 birusak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duena.

ALARMA-EGOERA DEKRETATU ONDOREN

MARTXOAREN 16TIK 21ERAKO ASTEA

2020ko martxoaren 16a

1. Egoeraren azterketa, alarma-egoera dekretatu ostean

Egoera aztertuko duen lantaldea sortu da



Koordinazio-mahaia

- **Idazkaria**
- **Kontratazioa**
- **Udaltzainburua**
- **Brigadako burua**
- **Alkateordea**
- **Kontu-hartzailea**
- **Gizarte zerbitzuak**
- **Arkitekto teknikoa**
- **Zinegotzia**
- **Alkatea**

Hartutako erabakiak

- Udal-baliabide guztiak koronabirusaren aurrean ahulenak diren adinekoei arreta ematera bideratu behar dira.
- 80 urtetik gorako herritar guztiei telefonoz deitzen hastea erabaki da, haien egoera ezagutzeko eta izan ditzaketen beharrak jakiteko.

2. Meazti Etxea

- Zainketa indartu beharra dago, egoiliarrak kalera irten ez daitezen.
- Kanpoko bisitak bertan behera geratu dira Meaztin.
- Udal langileek egingo dituzte egoiliarren erosketak.
- Bertako erabiltzaileei gosaria eskaintzen zaie.
- Bertan behera geratu da eguneko arreta eskaintzeko zerbitzua eta langile guztiek babespeko etxebizitzetan bizi diren 23 pertsonei eskainiko diete arreta. Horrek esan nahi du laguntzaileen asteko orduak 20 ordutan gehitzen direla (astelehenetik ostiralera) eta horiek, igogailuaren obra hasi zirenean gehitu ziren 17,5 orduei gehitzen zaizkiela (astelehenetik ostiralera); begiraleen orduak 20 ordu astean gehitze dira (astelehenetik ostiralera).
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren enpresa esleipendunak prestakuntza eman die langileei.

3. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

- Enpresa esleipendunak jarduteko protokoloen gaineko prestakuntza eman die langileei
- 18 erabiltzailek zerbitzuan aldi baterako baja ematea eskatu dute, badaezpada.

4. Gizarte-zentroa

- Eguneko Zentroa itxi da; horrek kontratua etetea dakar berekin.
- Ileapaindegiaren zerbitzua itxi da, horrek kontratua etetea dakar berekin.
- Podologia zerbitzua itxi da, horrek kontratua etetea dakar berekin.
- Mendekotasunaren balorazioak bertan behera geratu dira.

5. Santikutz egoitza

- Haiekin harremanetan jarriko dira eta udal baliabideak eskainiko zaizkie.

6. Udal bandoa

Herritarrei jakinarazi zaie, martxoaren 14ko Errege-dekretuaren ondorioz:

- Eraikin publiko guztiak itxiko direla.
- Bertan behera geratu direla ekitaldi publiko guztiak, asteroko azoka barne.
- Eten egin dela udaletxean herritarrei ematen zaien zuzeneko arreta, eta Udaltzaingoan larrialdietarako arreta-gune bat egongo dela.
- Eten egingo direla administrazio-prozeduren epeak; beraz, ez dago inolako dokumenturik presaz aurkeztu beharrik.

7. Udala berrantolatzea

1. Aldi baterako aldatu dira udal-brigadaren eginkizunak eta aurrerantzean adinekoei laguntzeko eginkizunak beteko ditu; horrez gain, bide-garbiketa indartu da. Bi talde osatu dira: talde batek goizez, 8:00etatik 14:00etara egingo du lan eta besteak arratsaldez, 14:00etatik 20:00etara.
2. Langile bakoitzak udal ibilgailu bat erabiliko du eta lanaldia bukatzean desinfektatu egin beharko du.
3. Aldagelatan areagotu egin da garbiketa.
4. Udaltzaingoak lan-txanda bat egingo du

8. Telelana

- Langile guztiei eman zaie etxetik lan egiteko aukera.

2020ko martxoaren 17a



Koordinazio mahaia

1. 80 urtetik gorako pertsonak

80 urtetik gorako 800 pertsona inguru daude, eta, beraz, kiroldegiko, kultur etxeko eta ekonomiako udal-langileek gizarte-zerbitzuei lagunduko diete deiak egiten. Guztira 9 langilek egiten dituzte deiak.

2. Adinekoen erosketak eta sendagaiak etxean entregatzeko zerbitzua

- Adinekoak euren etxetik irten daitezela galarazteko, Brigadak erosketak etxera eramateko aukera eman zaie.
- Elikagai-saltoki eta farmazia guztiei deitu zaie, erosketak etxera eramateko zerbitzuaren berri emateko.

3. Meazti Etxea

Garbiketa-orduak indartzea aztertu da, jantokiko eta sukaldeko laguntzaileei laguntzeko, eta eraikina desinfektatzeko dagoen errefortzuarekin jarraituko da.

4. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren ordutegia luzatzea

Coronavirusaren bidezko alarma-egoeraren inguruko gaiei erantzuteko, herritarrei telefonoz arreta emateko ordutegia 19:00ak arte luzatzea erabaki da.

Horrela, 7:30etik 19:00etara eskainiko zaie arreta herritarrei.

Horretarako, zerbitzu hori kiroldegiko eta kultur etxeko langileekin indartu da.

5. Gurutze Gorriarekin Guztion Artean elkartasun-sare antolatua koordinatzea

Sare hori eguneroko bizitzako beharrizanetarako laguntza behar duten pertsonentzat, hala nola premia biziko hornidurak: elikagaiak eta higiene- eta garbiketa-produktuakbehar dituztenentzat sortu da.

6. Hirigunetik urrun dauden baserriei eta auzoei udal-bandoaren berri ematea

Brigadako langileek udal-bandoaren berri eman die baserrietan eta Zaldu, Mantxola, Aztiria, Telleriarte eta Brinkola auzoetan bizi diren herritarrei.

7. Igogailu publikoetako pertsona-kopurua murriztea

Koronabirusak kutsatzea saihesteko ezarritako segurtasun-distantzia ziurtatzeko neurri gisa, bidaia bakoitzeko gehieneko pertsona-kopurua honako hau izatea ezarri da:

- Kultur etxeko igogailuan : 2 pertxona, gehienez
- San Ignazioko igogailuan : pertsona 1, gehienez
- Laubideko igogailuan : pertsona 1, gehienez

8. Udal langilearen egiaztagiria

Udal langile bakoitzari Legazpiko Udaleko langilea dela egiaztatzen duen ziurtagiria eman zaio.

9. Udal langileentzako eskuak desinfektatzeko garbiketa-materiala

- Gela hidroalkoholikoak jarri dira udal langileek erabiltzeko
- Komunetan erabili eta botatzeko papera jarri da eskuak lehortzeko

10. Sasieta mankomunitatearen informazioa

Sasieta mankomunitateak jakinarazi du irekita utziko dituela organikoa eta errefusa jasotzeko edukiontziak; horrela, ez dago txartelarekin ibili beharrik.

2020ko martxoaren 18a

1. 80 urtetik gorako pertsonei deiak

- Gutxi dira laguntza behar duten pertsonak; gehienek senitartekoen laguntza dute. Asko eskertzen dute udaletxetik deitu izana eta haien egoeraz kezkatu izana.
- Guztiei jarraipena egitea erabaki da.
- Gurutze Gorrikoek eguneko Zentroa erabiltzen dutenei deitu diete.



Mesa de Coordinación

2. Meazti Etxea

- Areagotu egin behar izan da kontrola Meazti etxeko egoiliarrek kalera irten ez daitezen. Goizetan Gizarte-zentroko atezaina egongo da zainketa-lanak egiten eta arratsaldetan, brigadako langile bat.
- Meaztin, bazkariak eta afariak bi txandatan ematea erabaki da, pertsonen artean gorde beharreko distantzia gorde ahal izateko. Eguneko arreta eskaintzen duen laguntzailearen errefortzua mantentzen da asteko 20 ordurekin (astelehenetik ostiralera); zerbitzu hori eten egin zen martxoaren 16an.
- Garbitzaileen ordu-kopurua igotzea erabaki da; bigarren errefortzua da hori eta martxoaren 19an hasiko da.

3. Gazteen lokalak

Gazteen lokal batzuetan ez dela etxetik irteteko debekua errespetatzen ikusi da eta, beraz, kartel oroigarriak jartzea erabaki da lokaletako ateetan.

4. Ordutegi berria hondakin organikoentzako poltsak hartzeko

Gizarte-zentroa ixteak zaildu egiten du hondakin organikoentzako zabor-poltsak eskuratzea; horregatik, kartel bat jartzea erabaki da, hondakin organikoentzako zabor-poltsak jasotzeko ordutegia astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara izango dela jakinarazteko.

5. Udal langileentzako jarduera-protokoloa

Udaleko langile guztiek tenperatura hartuko dute lanaldia hasi aurretik eta ondo sentitzen ez diren beste edozein unetan.

BOZERAMAILE BATZORDEA

- ✓ 2020ko Olaria saria jasotzeko epaimahaiak egindako proposamena Osoko Bilkuran onartzea
- ✓ Martxoaren 25eko Osoko Bilkura ez egiteko erabakia
- ✓ Azken Osoko Bilkuratik gaur arte sinatutako Dekretuen berri ematea
- ✓ Covid-19ak sortutako egoerari buruzko informazioa:
    - Meaztin eta Santikutz egoitzan hartutako neurriak
    - Goierri-Urola Garaiko ESIak hartutako neurriak
    - 80 urtetik gorako pertsonei deitzea
    - Ertzaintzak zaintza indartuko du eta deiak hartuko ditu arratsaldez, Udaltzainak goizeko txandan ari direnez gero
    - Euskaltegia klaseak Internet bidez ematen ari da
- ✓ Udal taldeek mahaigaineratutako gaiak:
    - Eskola-jangelarako diru-laguntzak dituzten familien egoera
    - Kontsumo-taldea eta asteko azoka
    - 80 urtetik gorako pertsonen egoera, etxeko lanei eta elikadurari dagokionean
    - Azpeitin ezarri dituzten neurri ekonomikoak
    - Nagusiei erosketetan eta sendagaiak lortzen laguntzeko elkartasun-programa
    - Kontsumo-taldea eta asteko azoka
    - 80 urtetik gorako pertsonen egoera, etxeko lanei eta elikadurari dagokionean
    - Azpeitin ezarri dituzten neurri ekonomikoak
    - Nagusiei erosketetan eta sendagaiak lortzen laguntzeko elkartasun-programa
    - Azpeitin ezarri dituzten neurri ekonomikoak
    - Nagusiei erosketetan eta sendagaiak lortzen laguntzeko elkartasun-programa

2020ko martxoaren 19a

1. Meazti Etxea

Garbiketaren bigarren errefortzua: beste 27 ordu gehitu dira astean, jantokia eta sukaldea garbitzeko eta, horrez gain, mantendu egiten da eraikin osoa desinfektatzeko martxoaren 12an hasitako lehen errefortzua.

2020ko martxoaren 20a

2 positibo

2020ko martxoaren 21a

3 positibo

MARTXOAREN 23TIK 29RAKO ASTEA

2020ko martxoaren 23a



Koordinazio mahaia

1. Meazti Etxea

- Igogailua amaituta dago eta Industria sailaren oniritziaren zain dago.
- Baliteke garbitegi enpresa ixtea eta zalantzak sortu dira.

2. Bide publikoak desinfektatzea

Bide publikoak desinfektatzeko moduak aztertu dira, igerilekuan erabiltzen den hipokloritoa daukagu eta. Gipuzkoako Urak-ekin hitz egin dugu gai hauei buruz:

- Bideak garbitzeko erabili beharreko hipoklorito kontzentrazioa.
- kale-garbigailua nola hustu eta garbitu; Mirandaolan egitea adostu da, eta bertan hodi kolektorera isurtzea.
- UGLE-rekin hitz egin da, bertan 3D inprimagailu bidez egiten dituzten maskarei esker presio-pistolekin desinfektatu ahal izateko.

3. Zakarrontziak desinfektatzea

Sasieta mankomunitateak jakinarazi du zakarrontzien desinfekzioari ekingo diola, bereziki heldulekuetan jarriko dute arreta.

4. Nagusilan-en informazioa “Zilarrezko haria”

Nagusilan-ek “Zilarrezko haria” ekimena existitzen dela azaldu du: telefono bidezko doako konpainia zerbitzua da, bakardadea senti dezaketen edo elkarrizketa bat izan nahi duten pertsona nagusientzat.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (3)
- ✓ 80 urtetik gorako pertsonekin harremana
- ✓ Eguneko Zentroko erabiltzaileei Gurutze Gorriak egindako deiak
- ✓ Kontsumo-taldeen egoera eta asteko azoka debekatzea
- ✓ Zabor bilketari eta zaborrontzi eta bestelako elementuak desinfektatzeari buruzko gaiak
- ✓ Zerbitzu batzuk gelditu egingo dira eta Udala egiten ari den herri-lanetan nola jardun aztertu
- ✓ Meaztiko egoera: garbiketa indartzea, igogailua martxan jartzea, egoiliarrek kontrolik habe egiten ari diren irteerak, etab.
- ✓

- ✓ Igerilekuko mantentze lanak
- ✓ Gipuzkoako Urak egiten ari den kontadoreen neurketen beharra
- ✓ Farmazietan babes pantailak ipintzen ari dira
- ✓ Etxeko lanak egiteko laguntza behar duten pertsonak gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri behar dira.

2020ko martxoaren 24a

4 positibo

1. Bide publikoak desinfektatzea

Bide publikoak desinfektatzea martxan da, kale garbigailu eta presio-motxilen bidez. Hipokloritoa erabiliz desinfekzio lanetan ari diren langileek UGLE-k egindako maskarak darabiltzate NBE ekipamendu gisa. Baranda eta bankuak desinfektatzen ere hasi dira hipokloritodun trapuak erabiliz.



Koordinazio mahaia

Langile hauek ari dira desinfekzio lanetan:

- 4 kale-garbitzaile
- Udal brigadako 10 langile, goizez eta arratsaldez lan egiten duten 5 laguneko bi taldetan antolatuta
- Kale-garbigailuetako 2 langile

2. Meazti Etxeko errefortzua

Meazti Etxearen arreta soziosanitarioko zerbitzua Etxez Etxeko laguntzako (ELZ) 9 langilerekin eta eraikin publikoen garbiketako 4 langilerekin ematen ari da.

Ordutegia zabaldu da eta orain astero 152,5 ordu arreta ordu dira (hasieran, astero 135 ziren).

Garbiketa orduak ere gehitu dira, hasieran 30 ordu ziren astean, orain 69 dira astean.

3. Santikutz Egoitza eta Meazti Etxea desinfektatzea

Gipuzkoako Suhiltzaileak Santikutz Egoitza desinfektatuko dute. Hori aprobetxatuz, brigadako eta gizarte zerbitzuetako arduradunak lan horiek ikustera joango dira gero desinfekzioa Meazti Etxean egin ahal izateko.

4. Bide publikoetan janari erakusmahaiak jartzeko debekua

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik zirkular bat jaso dugu kanpoko erakusmahaiek espazioaren garbiketa eta desinfekzioa oztopatzen dutela eta, izan ere, espazio hori oso garrantzitsua dela eremu publikoek izan dezaketen karga birala kentzeko.

Hortaz, merkataritza-eremuko euste neurrien arten, tokiko arduradunei gomendatu diete salbuetsitako merkataritza-establezimenduetatik kanpoko janari salmenta saihesteko.

5. 70 urtetik gorako pertsonei deiak

80 urtetik gorako pertsonei egindako deiek izan dute emaitza ona ikusita, 70 urtetik gorako pertsona guztiei deitzea erabaki da.

Etxean kontratatuko pertsonak dituzten eta mendekotasun laguntza duten pertsona nagusiei ere jarraipena egitea adostu da.

2020ko martxoaren 25a

1. Meazti Etxea eta Etxez etxeko laguntza zerbitzua

- Pertsona batzuk Meazti Etxetik ez irteteko arazoekin jarraitzen dugu eta pertsona horiekin berriro hitz egitea erabaki da koronabirusa ez hartzeko konfinamenduak duen garrantziari buruz.
- Udal brigadak Meazti Etxea desinfektatu du lehenbizikoz.



Koordinazio mahaia

2. Gizarte zerbitzuetako antolaketa neurriak

Kutsatzeak prebenitzeko neurri gisa, gizarte zerbitzuetako bi langileek txandaka lan egitea erabaki da. Hala, Herritarren Arreta Zerbitzuak telefono bidezko arreta eskaintzen duen bitartean, gizarte langile bat ariko da lanean.

3. Udal langileen antolaketa neurrien dekretua

Alarma-egoera apirilaren 11ra arte luzatzeak udal langileen antolaketa neurri berriak hartzea dakar:

- Udal langile guztientzat tenperatu erregistroa ezartzea
- Lan ordutegia malgutzea, telelanarekin bateragarri egiteko
- Udal zerbitzu guztien lan baldintzak ezarri dira

4. Tamaina handiko hondakinen bilketaren etenaldiari buruzko udal bandoa

Herritarrei jakinarazi zaie tamaina handiko hondakinen bilketa eten dela, eta, ondorioz, besterik esan arte, tamaina handiko hondakinak etxean gorde ditzatela eskatu zaie legazpiarrei.

5. Udal webgunean koronabirusari buruzko informazio guztia zentralizatzea

Koronabirusari buruzko informazio iturri asko daude eta informazioa oso aldakorra da. Horregatik, erabaki da udalaren webguneko banerrean biltzea informazio guztia, kronologikoki ordenatuta.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (4)
- ✓ 80 urtetik gorago pertsonei deitzen jarraitzen dugu eta 70 eta 80 urte bitarteko jendeari deitzen hasi gara
- ✓ Meaztin garbiketa, desinfekzioa eta zainketa indartzea
- ✓ Kontsumo-taldearen eta asteko azokaren Gaia landu da
- ✓ Legazpiko festak bertan behera uzteko aukera proposatu da, baita zaindariaren jai eguna maiatzaren 4tik irailaren 14ra aldatzea ere
- ✓ Legazpin dauden Senegaldarrei buruzko informazioa eman da
- ✓ Eskola-jangelako diru-laguntzei dagokienean, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du diru-laguntzek bere horretan dirautela jangelara joan ez arren,
- ✓ Diru-laguntza ildoen proposamena

2020ko martxoaren 26a

1. Meazti Etxea



Koordinazio mahaia

- Pertsona batzuk Meazti Etxetik irteten jarraitzen dute, eta, beraz, Meazti Etxetik kanpora ateratzeko jarraibide batzuk ezartzea erabaki da.
- Jarraibideen arabera, goizean 15 minutuz eta arratsaldean beste 15 minutuz irten ahal izango dira, binaka.
- Pertsona guztien erosketak erregulatu dira.

2. Aparkalekuko TAO kentzea

Aparkalekuetako TAO sistema etetea erabaki da

3. Zerga arloko neurriak COVID-19 birusak sortu duen osasun krisiaren ondorioz aparkalekuko TAO kentzea

a. Ondasun higiezinen gaineko zerga, 2020ko irailaren 15era
b. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2020ko urriaren 31ra
c. Bigarren seihileko zabor-bilketaren zerga, 2020ko azaroaren 30era

Zerga horien guztien helbideratutako erreziboak zergaldiaren azkeneko egunean kargatuko dira. Horrela, kontribuzioaren erreziboa irailaren 15ean kobratuko da, ibilgailuena urriaren 31n eta zaborrarena azaroaren 30ean

d. Asteroko azokaren bigarren hiruhilekoaren tasa kentzea
e. Aldian behin kobratzen diren beste tasa batzuk, prestatutako zerbitzuaren edo ateratako aprobetxamenduaren arabera kobratuko dira
f. Udal kiroldegiko ordainketak hainbanatu eta itzuli egingo dira, itxita egongo den denbora tartean

g. Ordainketak zatikatzeari eta luzatzeari dagokienez, Udalak honako konpromisoak hartu ditu
   - Horien tramitazioa erraztea
   - Ordainketak zatikatzeko eta luzatzeko gaur egun indarrean dauden epeak bikoiztea
   - 2020an eta 2021ean, arrazoi horrengatiko berandutze-interesak kentzea

2020ko martxoaren 27a

5 positibo

1. Santikutz Egoitza



Koordinazio mahaia

Gertakizunetarako plan bat egin dute eta eskatu dute brigadak kaperako eserlekuak kentzea, etor litezkeen gertaerei aurre egiteko prestatzeko.

Eguneko Zentroko janaria banatzeko bi orga uztea ere eskatzen dute.

2. Etxez etxeko arreta zerbitzuarentzat jarraibideak

Etxez etxeko Laguntza emateko kontratatutako enpresari jakinarazi zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako jarraibideak (EUDELen bitartez jaso dira).

3. Etxez etxeko arreta zerbitzuarentzat maskarak

Etxeetan eta Meazti etxean lan egiten duten Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileei maskara kirurgikoak banatu zaizkie. Nola erabili ere azalduta dator.

4. Udaltzainentzat maskarak

Udaltzainei maskarak banatu zaizkie. UGLEn egindako 3D maskarak ere badituzte.

5. Meazti Etxea

Meazti Etxean bizi den pertsona batek, koronabirusa ez den beste arrazoi batzuengatik ospitalean egon denak, alta jaso du eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren laguntza beharko du

2020ko martxoaren 28a

6 positibo

2020ko martxoaren 29a

Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretua, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako ordaindutako baimen berreskuragarria arautzen duena, COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko

10/2020 Errege Lege Dekretuak Udalean hartutako antolaketa neurrietan dituen ondorioak aztertu dira.



Krisi batzordea

MARTXOAREN 30ETIK APIRILAREN 5ERAKO ASTEA

2020ko martxoaren 30a

1. Santikutz egoitza



Koordinazio mahaia

Janaria banatzeko beste orga bat eskatu dute, hirugarrena, eta baita argindar luzagailuak ere.

2. Oinarrizkoak ez diren jardueren geraldiari buruzko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren ondorengo antolaketa neurriak

Ezohiko Alkatetza Dekretu bidez udal langileen mugikortasuna murriztea onartu da, koronabirusaren kontrako borrokaren testuinguruan.

Hiru jarduera mota ezarri dira: aurrez aurreko oinarrizko zerbitzuak, urruneko oinarrizko zerbitzuak eta ordaindutako baimen berreskuragarriko zerbitzuak.

3. Eraikinetako berokuntza eta garbiketa zerbitzuak doitzea

Jardueren geldialdiaren ostean hartutako antolaketa neurriek eraikin publiko batzuk ixtea ekarri dute, hala nola, kiroldegia, kultur etxea eta ikastetxeak. Beraz, eraikin horietako berokuntza sistemak itzaltzea eta garbiketa zerbitzuak bertan behera uztea erabaki da.

2020ko martxoaren 31a

1. Eguneko zentroko kontratuaren etenaldia ezeztatzea, Santikutz egoitzari langileak eskaintzeko



Koordinazio mahaia

Eguneko Zentroko jarduera eteteak Eguneko Zentroko zerbitzu kontratua etea behartu zuen.

Aldunditik Eguneko Zentroko langileak Santikutz egoitzara bideratzea proposatu dute. Horrek eragin du udalak zerbitzu honen kontratua berriro aktibatu behar izatea, Santikutz egoitzari langile errefortzua eskaintzeko.

2. Gurutze Gorriaren janari banaketa

Gurutze Gorriak jakinarazi du Elikagaien Bankura joaten diren pertsonei janaria banatuko diela eta zein familia banatu behar zaien jakiteko zerrenda eskatu dute.

2020ko apirilaren 1a

1. Meazti Etxeko igogailua martxan

Meazti Etxeko igogailua badabil, beraz garbiketa eta desinfekzio lanak indartu behar dira. Laguntzaileen errefortzua mantentzen da, bazkari eta afarietako bi txandak direla eta.



Koordinazio mahaia

2. Meazti Etxea desinfektatzea

Meazti Etxea bigarren aldiz desinfektatu da. Desinfekzioa asteazkenero egitea erabaki da.

3. 70 urtetik gorako pertsonei deiak

70 urtetik gorako 1.310 pertsonari deitzen ari gara. Ez dute udalaren laguntzarik behar, familiaren laguntza dute eta.

Eguneko Zentroko erabiltzaileei ere deitzen ari da Gurutze Gorria, eta bestelako arreta telefonoak ere badaude, hala nola, itxaropenaren telefonoa edo zilarrezko haria.

4. Osakidetzak Gizarte Zentroa apirilaren 3an odola ateratzeko egokitzea eskatu du

Normalean, odola ateratzeko gizarte zentroko lehen solairuko gelak erabiltzen dituzte. Kafetegiko mahai eta aulki guztiak kentzea erabaki da, beheko solairua askoz handiagoa delako eta odol ateratzeak koronabirusaren pandemiak eskatutako gutxieneko segurtasun

5. Santikutz egoitza

Gertakizunetarako planean jarraitzen dute lanean, eta egoitzako eremuak bereizteko plastikozko zinta eskatu dute.

BOZERAMAILEEN BILERAN TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (8)
- ✓ 70 urtetik gorako pertsonei deitzen jarraitzen dugu
- ✓ 8 familiari jakian eman zaizkie Gurutze Gorriaren bitartez
- ✓ Meaztiko egoeraren jarraipena: igogailua martxan da martxoaren 31z geroztik, astero desinfektatzen da, maskarak, eskularruak eta UGLEk 3Dko inprimagailuak erabiliz egindako pantailak banatu dira
- ✓ Santikutz egoitzako egoeraren jarraipena: gertakizunetarako plana: kapera hustu eta Eguneko Zentroko langileak egoitzara bideratzeko aukera, beharrezkoa balitz
- ✓ Ostiralean, apirilaren 3an, odol ateratzeak egingo dira. Hitzordu bidez egingo dira Gizarte Zentroko kafetegian COVID-19a saihesteko segurtasun neurriak hartuz.
- ✓ Udaltzaingoaren egoera: bajak eta langile berria
- ✓ Kontsumo-taldeak: Udal langileek baserriko produktuak banatuko dituzte etxez etxe.
- ✓ Herriko jai eguna maiatzaren 4tik irailaren 14ra pasatzea erabaki da

2020ko apirilaren 2a

1. Gizarte Zerbitzuetako Gertakizunetarako plana



Koordinazio mahaia

Gertakizunetarako plana lantzen hasi gara, pertsonak hartzeko egokitu litezkeen eraikin publikoak identifikatuz, etxean konfinamendua egiteko zailtasunak dituzten kasuetarako.

2. Meazti Etxea

Bainugela geriatrikoa itxi da aurrerantzean langileek bakarrik erabiltzeko.

3. Pasadizoan dabiltzanekin nola jardun

Pasadizoan dabilen norbait detektatu da. Aldundiarekin harremanetan jartzea erabaki da, Gipuzkoako hiru zentroetako batera bideratzeko: Zarautzera, Oriora edo Hondarribira.

4. Bide publikoak desinfektatzea

Kale, baranda eta bankuen eguneroko desinfekzio lanek aurrera jarraitzen dute.

5. Martxoko langabezia

Martxoko langabezia datuak argitaratu dituzte eta 31 langabe gehiago daude.

Otsailean 331 langabe zeuden, martxoan 342: 188 emakume eta 154 gizon.

6. Baserriko produktuak etxez etxe banatzeko zerbitzua: azoka eta kontsumo-taldea

Bertako ekoizleekin hitz egin ondoren baserriko produktuen banaketa ohiko salmenta egunetan egitea adostu dugu. Hau da, astelehen arratsaldean kontsumo-talderako eta ostiral goizetan.

Ekoizleen zerrenda, telefono-zenbaki eta guzti, webgunean ipiniko dira, bezeroek eskariak egin diezazkieten.

2020ko apirilaren 3a

10 positibo

1. Gizarte Zerbitzuetako Gertakizunetarako plana



Koordinazio mahaia

Egindako gertakizunetarako plana kontrastatu da eraikinen garbiketarako, etxez etxeko laguntza zerbitzurako eta eguneko zentrorako kontratutako enpresekin.

2. Meazti Etxea

Babespeko pisuetan bizi den pertsona bat ospitaleratu dute arnas arazoekin eta koronabirus sintomarik gabe.

Ospitaleko alta jasotzen duenean, errefortzu beharrik ba ote den aztertu beharko da.

3. Parke publikoen desinfekzioa areagotzea

Kale, baranda eta bankuen desinfekzioa normaltasunez egiten da eta, ondorioz, parke publikoak ere desinfektatzea erabaki da.

4. Gurutze Gorriaren janari banaketa

Gurutzek Gorriak jakinarazi du berriz egingo dutela janari banaketa. Urola Garaiko 100 familiari laguntzen ari zaie, Legazpikoak, 22.

5. Odol emaileak

Gizarte-zentroko kafetegia egokitu da eta hileroko odol ateratzea egingo da.

6. Maskara banaketa

Etxeko laguntzaileei maskarak banatu zaizkie, bai etxeetan dabiltzanei baita Meazti Etxekoei ere.

2020 ko apirilaren 4a

1. Meazti Etxea

Garbiketako hirugarren errefortzua: sukalde eta jangelarako 4 ordu gehitu dira asteko, zehazki asteburu eta jai-egunetan. Gainera, aurretik dauden eraikin osoko desinfekzioen bi errefortzuak (martxoaren 12koa eta 19koa) mantenduko dira.

2020ko apirilaren 5a

12
positibo

APIRILAREN 6TIK 12RAKO ASTEA

2020ko apirilaren 6a

13 positibo

1. Kontsumo-taldearen baserriko produktuen banaketa

Lan egiteko modu hau adostu da: ekoizleek jakiak plastikozko poltsetan ekarriko dituzte, bezeroaren izena eta helbidea grapatuta.

Ekoizle batzuek hotz-katea zaintzea behar duten jakiak banatzen dituzte, eta, ondorioz, jaki hauek banatuko lehendabizi.



Koordinazio mahaia

2. Aurreikuspena: dendetan ilara luzeak Aste Santuko jai-egunak direla eta

Udaltzaingoak jakinarazi du herritarrek dendetara sartzeko ilaretan behar bezala jokatzen dutela. Herritarrei erosketak maila egiteko eskatzea erabaki da.

2020ko apirilaren 7a

1. Pertsona nagusien beharrak Aste Santuan

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileei eta Meazti Etxekoei maskarak eta eskularruak banatzen ari gara.
- Meazti Etxeko langile errefortzu bat aurreikusi da, 7:30tik 21:30 arte gutxienez bi langile egon daitezen Meazti Etxean.



Koordinazio mahaia

2. Kontsumo-taldearen baserriko produktuen banaketa

Lan egiteko modu hau adostu da: ekoizleek jakiak plastikozko poltsetan ekarriko dituzte, bezeroaren izena eta helbidea grapatuta.

Ekoizle batzuek hotz-katea zaintzea behar duten jakiak banatzen dituzte, eta, ondorioz, jaki hauek banatuko dira lehendabizi.

3. Arratoi-garbiketak

Udalak kontratatutako arratoi-garbitze zerbitzuak astean bitan egiten du leku gatazkatsuenen azterketa.

Berariazko arratoi-garbiketak egin dira Aizkorri kalean, Bikuñaenean eta Meazti Etxean.

4. Aste Santuko ospakizun erlijiosoak

Ez da ospakizun erlijiosorik egingo.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (13)
- ✓ Asteko azokaren eta kontsumo-taldeen azterketa
- ✓ Meaztiko egoeraren jarraipena: zaintza eta garbiketa dedikazioa handitzea
- ✓ Gertakizunetarako plan bat egin dute Meaztin eta bertan jaso dute zein hornikuntza egokitu daitezkeen sintomarik gabeko pertsonak hartzeko: Gizarte Zentroa, Kiroldegia, Ostatua eta Santikutz 19ko etxebizitza
- ✓ Arratoi-garbiketa herriko zenbait lekutan
- ✓ Aldundiak bertatik pasatzen direnentzat hiru aterpetxe prestatu dituela jakinarazi da
- ✓ Apirileko Osoko Bilkura telematikoari buruzko gaiak: udaltzain ofizialordearen prestasuna, Olaria eta Larrialdiko etxebizitzaren araudia

2020ko apirilaren 8a

14 positibo

1. Pertsona nagusien beharrak Aste Santuan

- Etxeetako eta Meazti Etxeko Aste Santuko beharrak koordinatu dira etxez etxeko laguntza zerbitzuko eta garbiketa zerbitzuko enpresekin: bazkaria, afaria, erosketa, etab.



Koordinazio mahaia

2. Meazti Etxea

Etxez etxeko laguntza zerbitzurako beste langile errefortzu bat gehitzea erabaki da: larunbat, igande eta jai-egunetan 4 ordu.

Guztira, errefortzuak honakoak dira:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua, astean 135 ordutik, 156,5 ordura.
- Garbiketa, astean 30 ordutik, 71 ordura.
- Begiraleak, astean 20 ordu.

3. Santikutz egoitzaren beharrak

Gertakizunetarako kapera egokitzen amaitzeko bionboak eskatu dituzte.

4. Santikutz egoitzan bakartuta dauden pertsonak

Egoiliar batek sukarra eta arnas arazoak ditu, nahiz eta ez duten uste koronabirusa duenik, pneumoniak izan ohi ditu eta.

Osakidetzak koronabirusaren proba egingo dio.

2020ko apirilaren 9a

Santikutz egoitzan bakartuta zegoen egoiliarra hil da. Osakidetzak gelakideari proba egitea erabaki du.

2020ko apirilaren 10a

Gelakidearen koronabirus probak negatibo eman du. Beste proba bat egingo diote asteartean, apirilaren 14an.

APIRLAREN 13TIK 19RAKO ASTEA

2020ko apirilaren 14a

1. Udal langileak

Ordaindutako baimen berreskuragarrian zeuden udal langileak martxoaren 29aren aurreko baldintzetan itzuli dira lanera.

Kultur etxeko eta kiroldegiko garbiketa berriz hasi da.



Koordinazio mahaia

2. Meazti Etxea

Osasun Publikoaren Zuzendaritzak EUDELen bitartea banatutako maskara eta eskularruak banatu ditu.

3. Lanak

Lan hauek berriz hasi dira:

- Laubide bakoitiak
- San Ignazio-Arantzazu-San Jose
- Laubideko parkeko estalki naturala

4. Asteroko merkatua eta kontsumo-taldea

Osasun Publikoaren Zuzendaritzak baimendu dituenez, berriz hasiko dira asteroko merkatua eta kontsumo-taldea.

Kontsumo-taldea banaketa euren kabuz edo udal langileen bitartez egitea proposatu zaie. Bi ekoizlek euren kabuz egitea erabaki dute eta beste ekoizleak udal langileek egitea erabaki du.

2020ko apirilaren 15a

20 positibo

1. Premiazko etxez etxeko laguntza zerbitzua

Ospitalean egon eta gero etxera itzultzen diren pertsonei etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaini zaie.

2. Meazti Etxea

- Ospitaleratutako pertsonari egindako testak emaitza negatiboa eman dio Koronabirusean
- Guztiontzako eremuak desinfektatu dira



Koordinazio mahaia

3. Batzorde telematikoak prestatu

Apirileko batzordeak eta bozeramaileen batzordea telematiko egiteko beharrezko baliabide teknikoak badaude.

4. Gurutze Gorriaren janari banaketa

Beste janari banaketa bat egin dute.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (20)
- ✓ Santikutz egoitza: langileei egindako probek negatibo eman dute eta UGLEk 3D inprimagailuak erabiliz egindako maskara-pantailen banaketa
- ✓ Meazti: garbiketa zerbitzuaren indartzearen jarraipena eta asteroko desinfekzioa
- ✓ Etxez etxeko laguntza zerbitzua: zerbitzua eskuragarri dago behar larrietarako
- ✓ Asteko azoka: apirilaren 17an hasiko da, 12 postu izango ditu eta poliziak kontrolatuko du
- ✓ Kontsumo-taldeen egoeraren azterketa
- ✓ Antolaketa Batzordea eta Bozeramaile Batzordea telematikoki egingo direla jakinarazi da

2020ko apirilaren 16a

21 positibo

1. Meazti Etxea

Garbitzaile bat berrogeialdi prebentiboan dago, gertuko senide batek egoitza batean lan egin eta lehenengo proban positibo eman duelako, nahiz eta bigarren proban negatibo eman duen.

Ospitaleratutako pertsonaren etxebizitza desinfektatu da.



Koordinazio mahaia

2. Asteroko merkatua

- Merkatuan hartu beharreko segurtasun eta higiene neurriak ezarri dira.
- 13 salmenta postu ipiniko dira, 6 azokan eta beste 7ak Urbeltz pilotalekuko arkupean.
- Erosleen sarrera hesi bidez bideratuko da postu bakoitzera eta lurrean non egon behar duen markatuko da zinta bidez.
- Eskularruak eta eskularruak garbitzeko gel desinfektatzailea ipiniko da azokako hainbat lekutan, mahaietan.
- Azoka eta Urbeltz pilotalekuko arkupeak desinfektatuko dira.

- Plazako komun publikoak garbitu eta desinfektatuko dira, asteroko azokan erabilgarri egon daitezen.

3. Trukeguneak

Laubideko eta Txomin pasabideko Trukeguneak behin-behinean kentzea erabaki da.

2020ko apirilaren 17a

22 positibo

1. Meazti Etxea



Koordinazio mahaia

- Arazoak daude berokuntza eta etxeko ur beroaren zerbitzuarekin.
- Maskara eta eskularru gehiago iritsi dira.
- Osasun Publikoaren Zuzendaritzatik jakinarazi dute tutoretzapeko pisuetako bizilagun guztiei egingo dizkietela probak.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuko enpresak langileei proba egingo die.

2. Ordena publikoko gertakaria

Ertzainek eta udaltzainek pertsona bat atxilotu dute tren geltoki inguruan aparkatutako 6 ibilgailutan eta Gaztetxe inguruan beste 2 ibilgailutan triskantzak egin dituelako, eta Urtatzako baserri batean sartu delako leiho bat apurtuta.

Atxiloketaren ondorioz, ertzain batek hatza apurtuta du eta udaltzain batek sorbalda destokituta.

3. Santikutz egoitza

30 langileri egindako probek negatibo eman dute. Gainerako langileei gaur egingo zaie proba, eta egoiliarrei datorren astean.

UGLE-k 3D inprimagailuak erabiliz egindako 40 maskara entregatu dira.

Eguneko Zentroko pertsonak mugitzeko grua bat uzteko eskatu dute.

APIRLAREN 20TIK 26RAKO ASTEA

2020ko apirilaren 20a

1. Olaberriako etxebizitzako teilatuaren erorketa



Koordinazio mahaia

Atzo, igandea, Olaberria 28an dagoen etxebizitzaren teilatuaren zati bat erori zen, eta, ondorioz, GI-2630 errepidetik auzorako sarbidea itxita dago.

Arkitekto teknikoak eraikinaren ikuskapen teknikoa egingo du gaur, eta bihar, udal arkitektoak, egoeraren azterketa egiteko.

2. Udana baserriko sutea

Baserriko tximiniak su hartu du eta suhiltzaileek etorri behar izan dute.

3. Domingo Agirreko atezaintza

Domingo Agirreko atezaina ordaindutako baimen berreskuragarrian zegoen, baina lanean hasi da martxoaren 29aren aurreko baldintzetan hasi da.

4. Haztegi ikastolako garbiketa

Haztegi ikastolako idazkaritza berriz hasi dira garbitzen.

5. Santikutz egoitza

Brigadak Eguneko Zentroko pertsonak mugitzeko grua eraman du, baita bi bateria eta erabilera instrukzioak ere.

6. Meazti Etxea

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko kontratatutako enpresak lehen testak egiten dizkie langileei

2020ko apirilaren 21a

1. Meazti Etxea



Mesa de Coordinación

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duen enpresako bi langileri egindako testek emaitza negatiboa eman dute.
- Ur beroarekin eta berogailuarekin zeuden arazoak konpondu dira.

2. Olaberriako etxebizitzako teilatuaren erorketa

Eraikina zer egoeratan dagoen ikuskatu da, eta teilatua erortzeak bizilagunen ibilgailuen joan-etorrian eraginik ez duela erabaki da.

3. Asteroko merkatua

Hurrengo ostiraleko azokan postu gehiago jartzea erabaki da. Bestetik, ordutegia aldatu da eta hauxe izango da ordutegi berria: 9:00etatik 12:30era.

2020ko apirilaren 22a

23 positibo

1. Meazti Etxea

Udal brigadak asteroko desinfekzio-lana egin du.

2. Apirilaren 26tik aurrera 14 urtetik beherakoek ibilaldiak egin ahal izateko baimenaren iragarkia

Udalerriko haur-parkeak itxita jarraitzen dutela egiaztatu beharko da.

Gehien erabiltzen diren pasealekuak zein diren komeni da jakitea, desinfekzio-lanak indartu behar badira ere.



Mesa de Coordinación

3. Antolaketa batzordea eta Bozeramaileen batzordea telematikoak izan dira

Lehen aldia da Legazpiko Udalaren historian, ohiko bilkura horiek telematikoki egiten direla.

Horiek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 46.3 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzean egiten dira, 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako alarma-egoera indarrean dagoenez. Ez da ahaztu behar azken helburua gizartea urruntzea izan dela, COVID-19k eragindako infekzioa hedatzea saihesteko.

ANTOLAKETA BATZORDE TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

Lehen aldiz egin da Batzorde telematikoa Udalean.

Batzordean, PSE-EE eta Legazpiko Berdeak taldeetako ordezkariekin eta Alkatearekin batera ez dira egon, ohi duten bezala, EAJ-PNV taldeko bi ordezkariak eta EH Bildu taldeko bi ordezkariak. Horren ordez, EAJ-PNV eta EH Bildu taldeek udal bozeramaileen bidez boto haztatua izan dute.

Osoko Bilkurarako irizpena duten gaiak:

- ✓ Olaria (aho batez)
- ✓ Udaltzaingoaren ofizialordearen prestasun osagarria (aldeko botoa: EAJ-PNV; abstentzioa: EH Bildu, PSE-EE eta Legazpiko Berdeak)

BOZERAMAILE BATZORDE TELEMATIKOA

Lehen aldiz egin da Bozeramaile Batzorde telematikoa Udalean.

Osoko Bilkurako gaiak aipatu dira eta onartutako Dekretuen berri eman da.

Gainera, honetaz ere hitz egin da:

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (23)
- ✓ Zein bide publiko eta hiri-altzari desinfektatzen diren eta nolako maiztasunez
- ✓ Uda ikastaroak
- ✓ Haurrentzako maskarak

2020ko apirilaren 23a

1. Apirilaren 26tik aurrera 14 urtetik beherakoek ibilaldiak egin ahal izateko baimenaren iragarkia



Mesa de Coordinación

Haurrak kalera irtetzeko bete beharrezkoak diren prebentzio-neurriak errepasatu dira:

- Kaleak desinfektatzen dira, goizean eta arratsaldean
- Egunean behin, eserlekuak eta gainerako hiri-altzariak desinfektatzen dira
- Ibilaldietan kilometro bateko distantzia gordetzen dela kontrolatzen da.

2. Asteroko merkatua

Erabili eta botatzeko eskularruak eskaintzen dira.

3. Hegialdeko jaiak bertan behera

Hegialdeko jai batzordeak jaiak bertan behera uztea erabaki duela jakinarazi du.

2020ko apirilaren 24a

24 positibo

1. Meazti Etxea

Ospitalean 15 egun egin dituen pertsonak positibo eman du koronabirusean. Prebentzio-neurri hauek hartu dira:



Mesa de Coordinación

- Testak egitea Meaztin bizi diren pertsona guztiei.
- Kontingentzia Plana aktibatzeko aukera planifikatzea:

  - ✓ jarduerak koordinatuko dira etxez etxeko laguntza zerbitzua eta garbiketa zerbitzua prestatzeko kontratatutako enpresekin
  - ✓ Gizarte-zentroan gune garbia martxan jartzea aurreikusiko da, bertan kutsatu gabeko pertsonak kokatzeko. Horretarako, Gurutze Gorriarekin koordinatu behar da, hark hornituko baititu beharrezko altzariak.
  - ✓ Gizarte-zentroko sukaldaritza-kontratua aktibatuko den aztertuko da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailarekin koordinatzea Meazti Etxea eta Gizarte-zentroa sektorizatzeko aholkularitza jasotzeko.
- Udaleko brigadako arduraduna alertan jartzea, brigadako langileek esku hartu behar badute ere.

2020ko apirilaren 25a

1. Meazti Etxea

Meazti Etxean bizi diren pertsona guztiei egin zaizkien testek negatibo eman dute; beraz, ez da Kontingentzia Plana aktibatuko.

2. 14 urtetik beherakoek ibilaldiak egin ditzakete

Apirilaren 25eko SND/370/2020 Agindua argitaratu da, COVID-19k eragindako osasun-krisialdian haurren joan-etorrietan bete behar diren baldintzei buruz

- 14 urtetik beherakoak heldu arduradun batekin irten daitezke, gehienez 3 adingabe. Heldu arduradunak adingabearen etxean bizi behar du, adingabearen ardurapeko etxeko langilea edo baimendutako pertsona izango da.
- gehienez ordubetekoa izango da ibilaldia
- Adingabearen etxetik kilometro bateko distantziara, gehienez ere.
- Ordutegia: 9:00etatik 21:00era.
- Heldu arduradunak egunero paseatzen den bitartean kutsatzea saihesteko baldintzak betetzen direla bermatu beharko du.

APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 3RAKO ASTEA

2020ko apirilaren 27a

1. Meazti Etxea

Meazti etxean bizi direnei egindako testek negatiboa eman dutela ikusi ondoren, egoera lasaia da.


Mesa de Coordinación

2. Udako terrazak

Terrazak bide publikoan jartzeko 2019an emandako baimenak berrikustea erabaki da. Bi kontu aztertuko dira:

a. Baimendutako espazio publikoan sartzen diren mahaien kopurua kalkulatuko da, 2 metroko segurtasun-distantzia mantenduz.
b. 2019an baimendutako mahai-kopurua instalatzeko behar den espazio publikoa kalkulatuko da.

3. Obrak San Ignazio auzoan

Obra horiek maiatzaren 4an hastea aurreikusten da eta, beraz, honako jarduketa hauek planifikatu behar dira:

- Obra egingo den kaleko etxebizitzak ikuskatzeko bisita teknikoak
- Auzotarrei jakinaraziko zaie kalea trafikorako itxi egingo dela eta edukiontziak lekuz aldatuko direla.

4. Santikutz jai nagusiak

Udalak programa bat prestatu du 2019ko jaietako argazki eta bideo bildumekin:

- apirilaren 30ean: txupinazoa
- maiatzaren 1ean: haur-danborrada
- maiatzaren 2an: ganadu feria eta herri-danborrada
- maiatzaren 3an: ezpata dantza eta Olaria saria ematea

Kultur taldeek jarduera gehigarriak antolatu dituzte:

- Legazpinsortzecovidea: egitarau bat osatu du jarduera birtualekin eta kalean egin beharreko bi jarduerekin. Eskaera Ertzaintzari bidali zaio.
- Ilinti: kaleetan musika jarduera antolatu du DJ batekin
- Telleriarte Txirrindulari Elkartea: Santikutz klasika birtuala antolatu du; lasterketaren azken 30 kilometroak jokatuko dira.
- Josean Larrea: “Mirandaola 1580-1980” dokumentala
- Sustraiak dantza taldea: ezpata dantzaren bideoa

2020ko apirilaren 28a

1. Gizarte Zerbitzuak

Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen pertsona baten egoera aztertu da.



Mesa de Coordinación

2. Maiatzaren 2tik aurrera helduek ibilaldiak egin ahal izateko baimenaren iragarkia

Meazti Etxean bizi diren pertsonekin bilerak egitea erabaki da, iragarritako mugak bete ditzaten.

3. Meazti Etxea

Garbiketa-zerbitzua emateko kontratatutako enpresa testak egiten hasi da langileen artean.

2020ko apirilaren 29a

25 positibo

1. Meazti Etxea

Garbiketa zerbitzuko langileei egindako testek negatibo eman dute.

Eremu komunetan asteroko desinfekzio-lana egingo da.



Mesa de Coordinación

2. Gizarte-zentroa

Eguneko zentroa itxita dagoela aprobetxatu nahi da bertako instalazioak pintatzeko. Brigadako langileek egingo dute lan hori.

Adinekoei eskaintzen zaizkien ile-apainketako eta podologiako zerbitzuak irekitzeko baimena emanez gero, gizarte-zentroa nola irekiko den aztertzen hasi behar da.

3. Jaiak

Ertzaintzak Barne Ministerioari kontsulta egin ondoren, kaleko jarduera egiteko baimena jaso da baina honako baldintzak betez gero: udal-kamioia erabili behar da, udal gidariak eramango du kamioia eta udaltzaingoaren patruila batek lagunduta egingo da.

Legazpinsortzecovidea taldeak maiatzaren 1erako eta 3rako proposatu dituen jarduerak egiteko baimena eman da. Ilintik maiatzaren 1erako proposatu duena ere onartu da.

4. Aforoa ezkontzetan

Udalbatza-aretoko eta Agirre Etxeberri etxeko edukiera edo aforoa aztertu behar da, COVID-19rekin kutsatzea saihesteko segurtasun-neurriak betetzen direla bermatuko duten neurriak zehazteko.

OSOKO BILKURA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

Lehen aldiz egin da Osoko Bilkura telematikoa Udalean.

Gai hauek landu dira:

- ✓ Olaria: aho batez onartu da Olaria 2020 saria ex aequo ematea Ikastolako jaiotza egiten duen boluntario taldeari eta Alaitasuna errondailari
- ✓ Udaltzaingoaren ofizialordearen prestasun osagarria: onartu da EAJ-PNV taldearen aldeko botoarekin eta EH Bildu, PSE-EE eta Legazpiko Berdeak taldeen abstentzioarekin
- ✓ Kontu-hartzailearen txostena, aurrekontu-egonkortasuneko baldintzak betetzeari buruzkoa

Eskariak

- ✓ Legazpiko Berdeak taldeak zenbait eskari egin ditu: elikagai-bankuari buruz, iturri publikoei buruz, ingurugiro zerbitzuari buruz eta Meaztiko ko ELZri buruz
- ✓ EH Bildu-k zenbait eskari egin ditu: hezkuntzako arrakala digitalari buruz eta ekonomia abiarazteko mahaiari buruz

Galderak

- ✓ Legazpiko Berdeak taldeak galderak egin ditu gai hauei buruz: ingurugiroa, WiFia martxan Kultur etxean, eraikinetan energia aurrezteko neurriak, asteko azoka, kontsumo taldea.
- ✓ EH Bildu taldeak galderak egin ditu gai honi buruz: arrakala digitala hezkuntzan

2020ko apirilaren 30a

1. Gizarte Zerbitzuak

- Konfinamenduan adinekoen mendekotasun-maila handitzen ari da.



- Udalak deiak egingo dizkie zaintzaileentzako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten familiei; deiak maiatzean eta ekainean egingo dira.

2. Azoka

Azoka egin da COVID-19rekin kutsatzea saihesteko segurtasun-neurriak betez.

Aste honetan oilasko erreak saltzen dituen postua ere bertan izan da.

3. Jai nagusiak

Balkoi nagusia apaindu da eta Legazpiko bandera haga erdian jarri da, COVID-19ren ondorioz hildako pertsonen aldeko dolua adierazteko

2020ko maiatzaren 1a

Apirilaren 30eko SND/380/2020 Agindua, COVID-19k eragindako osasun-krisialdian aire zabalean jarduera fisiko ez-profesionala egiteko baldintzei buruzkoa.

Honako ordu-tarteak ezarri dira:

- Kirola eta ibilaldiak, 6:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara egin ahal izango dira.
- 70 urtetik gorako pertsonek edo beharrizanengatik lagunduta irten behar dutenek banakako kirola egin eta paseatu ahal izango dute 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.
- 14 urtetik beherakoak 12:00etatik 19:00etara irten ahal izango dira.

MAIATZAREN 4TIK 10EKO ASTEA

2020 maiatzaren 4a

1. Gizarte zerbitzuak



Koordinazio mahaia

Gizarte zentroan ile-apainketa eta podologia zerbitzuak martxan jartzeko jarraitu beharreko urratsak aztertzea.

2. Udaltzaingoa

- ✓ Osasun arrazoiak direla eta iturri publikoak ez irekitzea eta irekita daudenak zigilatzea proposatu da.
- ✓ Extremadurar Zentroa urak hartu du Gipuzkoako Urak-en kutxatila baten aberiak eraginda.
- ✓ Arantzazu haur-parkea zigilatu da jende asko pilatzen delako.

3. San Ignazioko lanak

Zakarrontziak lekuz aldatu dira eta dena prest dago lanak hasteko.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Kutsatu kopuruari begiratua (25)
- ✓ COVID-19ak eragindako aurrekontu doikuntzaren zirriborroa aztertu da, 2020rako aurreikusitako diru-sarreren beherakada kontuan hartuta.
- ✓ Gastu-atxikipenen proposamenak aztertu dira
- ✓ Tokiko merkataritza sustatzeko ekintza planaren atariko azterketa egin da
- ✓ Udal taldeek ekarpenak egin ditzaten maiatzaren 6ra arteko epea ematea erabaki da

2020ko maiatzaren 5a

1. Gizarte Zerbitzuak



Koordinazio mahaia

Gaur ile-apainketa zerbitzua hasiko da Gizarte Zentroan. Beraz, garbiketa zerbitzua indartuko da, astean 3 egunetan garbitzetik 5 egunetan garbitzera pasatuko da.

Zaintzailea izateko laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten 300 familiari deiak egiten hasi gara.

2. Meazti

Meaztiko egoiliarrak paseatzera modu ordenatuan irten daitezen plan bat egin da.

3. Odol emaileak

Ostiralean berriz ere egingo dira odol emateak Gizarte Zentroan eta, beraz, kafetegia desinfektatzea planifikatu behar da.

4. Herritarren Arretarako Zerbitzuko terminal informatikoa

Eskularruak eta gel desinfektatzailea jarri dira erabiltzaileentzat eta teklatuaren garbiketa indartuko da, 7:30ean eta 15:00etan.

5. Udaltzaingoa

- ✓ Larunbatean kalentura zuela eta etxera joan zen udaltzainak sintoma berekin jarraitzen du eta Koronabirus protokoloa jarraituz artatuko dute.
- ✓ Mugikortasun mugatuta dagoenez ez dago aparkatzeko arazorik eta, beraz, ez da beharrezkoa TAO berriz martxan jartzea autoen txandaketa errazteko.

2020ko maiatzaren 6a

1. Udaltzaingoa

Ostiralean egingo diote bajan dagoen udaltzainari koronabirusaren proba



Koordinazio mahaia

2. Meaztiko asteroko desinfekzioa eta bide-publikoena

Gaur Meaztiko asteroko desinfekzioa egingo dute. Egunero kaleak eta hiri-altzariak desinfektatzen jarraitzen dute.

3. Tamaina handiko hondakinen bilketa berriro martxan

Sasietak jakinarazi du hurrengo ostiraletik aurrera, maiatzaren 14tik aurrera, tamaina handiko hondakinak biltzen hasiko dela. Herritarrei jakinarazteko albistea egin behar dugu.

4. Ekainaren 23ko alardea bertan behera

Alardea antolatzen duen herritar taldeak jakinarazi du bertan behera uztea erabaki dutela.

2020 maiatzaren 7a

1. ELZko langileei eta udaltzainei probak

EUDELek eskatu du Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko eta Udaltzaingoko langileen zerrenda.

Langile guztien datu pertsonalak adieraziz inprimakia betetzea eskatu dute.



Koordinazio mahaia

2. Terrazak deskonfinamenduko 1. fasean

Bi establezimenduk interesa dute astelehenean, maiatzaren 11an terraza irekitzeko. Beraz, irekitzeko baldintzak ezartzea komeni da.

3. Udaletxeko langileentzat babes-holtzak

Jendeari zuzeneko arreta emateen dieten lanpostuak identifikatu dira, babes-holtzak jartzeko.

2020ko maiatzaren 8a

26 positibo

1. Meazti Etxea

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langile bat kalenturarekin dago eta koronabirus protokoloa aktibatu da.



Koordinazio mahaia

2. Terrazak deskonfinamenduaren 1. fasean

Deskonfinamenduaren 1. fasean, 2019an emandako baimeneko edukieraren % 50a bakarrik baimentzen da.

Oraindik ere ez da argitaratu hori arautuko duen ministerioaren agindua. Beraz, zirriborro bat prestatuko da establezimendu bakoitzarentzat 2019an onartutako mahaien % 50a aintzat hartuz. Terrazei buruzko udal ordenantza aztertuko da malgutasun aukerarik eskaintzen duen ikusteko.

3. Eguneko Zentroa margotzea

Brigada Eguneko Zentroa margotzen hasi da berriz irekitzen dutenean lana eginda izateko.

4. Koordinazio mahaiaren azken bilera

Astelehenean deskonfinamenduaren 1. fasea hasiko da eta ohiko jarduna itzuliko da: lana Zuzendaritza bileren eta antolaketa, herritartasuna eta lurralde arloetako koorddinazio bileren bitartez egingo da.

BOZERAMAILEEN BILERA TELEMATIKOA

LEGAZPIKO UDALA

- ✓ Udal talde politikoen ekarpenen ondoren, mikroenpresen lehiakortasuna hobetzeko eta tokiko merkataritza suspertzeko diru-laguntzen lerroen birformulazioaren aurkezpena
  - 25.000 € COVID-19a saihesteko hartu beharreko segurtasun neurrietara egokitzeko inbertsioetarako
  - 100.000 € merkataritzan eta autonomo zein mikro-enpresen negozioetan erosteko bonuak
  - 12.000 € PSE-EE taldeak proposatutako menu bonuetarako
- ✓ PSE-EE taldeak proposatuta indartu beharreko beste lerro batzuk
  - Eskolako materiala erostea, beste 8.000 €
  - Gizarte zerbitzuen laguntza fiskalak, beste 7.500 €
- ✓ EH Bildu taldeak egindako proposamenak

- Zuzeneko laguntza lerroak: Lanbidek ematen dituen laguntzekin dituzten bateraezintasunak ondo aztertu behar dira. Astelehenean Uggasako Administrazio Kontseilua egingo da, eta bertan planteatzea proposatu da.
- Tokiko merkataritzari buruz kontzientziatzeko kanpaina eta salmenta elektronikorako plataforma: Uggasa Eskualdeko Agentzia ari da gaia aztertzen. Astelehenean Uggasako Administrazio Kontseilua egingo da, eta bertan planteatzea proposatu da.
- Ekonomia berpizteko mahaia. Bada sozioekonomiari buruzko eskualde mahai bat eta, beharbada, aktiba daiteke.
- Prever plana edo antzerakoa lanetako gremioak aktibatzeko. Beste erakundeekin aztertu behar da martxan jartzeko.
- Bertako enpresak kontratatzea lehenetsi: aurreko legealditik aplikatzen ari da politika hau eta ildo beretik jarraitzea da asmoa.

✓ Legazpiko Berdeak taldeak egindako proposamenak

- Merkatari txikiei, turismo establezimenduei eta asteko azokari tasak txikitzea: martxoaren 26an onartu eta argitaratutako neurriak.
- Udal tasak berriz kalkulatzea: maiatzaren 4ko bozeramaileen bileran emandako informazioa.
- Legazpiko eta Urola Garaiko denda txikietan erostea sustatzeko komunikazio-kanpaina (15.000€): Uggasak egindako txosten teknikoan jasotako eta bozeramaileei jakinarazitako neurrietako bat da.
- Tokiko txanpona: antzerako egitasmoek ez dute arrakastarik izan, hala ere kontuan hartzeko egitasmoa izan liteke.
- Diru-laguntza zuzenak COVID-19ak kaltetutako merkataritza, ostalaritza edo enpresa jarduerentzat (250.000€): Lanbidek ematen dituen laguntzekin dituzten bateraezintasunak ondo aztertu behar dira. Astelehenean Uggasako Administrazio Kontseilua egingo da, eta bertan planteatzea proposatu da.
- Udalak abalatutako eta ordaindutako zero intereseko mikrokredituak, herriko banketxeekin eta Fiare banku etikoarekin lankidetzan (250.000€): Elkargi honetan ari da
- Enplegua sustatzea (100.000 €), 2020ko udal-aurrekontuan aurreikusitako 45.000 euroez gain: zehatz-mehatz aztertu beharreko lerroa
- Bizikidetza-unitateentzako laguntzak, haurrak eta mendeko pertsonak zaintzeko (150.000 €): udalerri batzuetan abian jarri diren lerroak langileen kontratazioa diruz laguntzera bideratu dira. Zalantza asko sortu ditu, eta, beraz, beste udalerri batzuetan lortutako emaitzak aztertzea proposatzen da.
- Gizarte Zerbitzuen aurrekontua handitzea, datozen beharrei aurre egiteko. Egiten ari gara.
- Tokiko kultura- eta elkarte-sarea babestea: dagoeneko aurreikusi da bozeramaileei emandako aurrekontu-doikuntzan

- Klima-larrialdiari aurre egiteko aurrekontu-partidak handitzea: Laubideko parkeko estalki naturalaren obra egiten ari dira, San Ignazioko obra hasi da Europako LIFE proiektuaren markoan. Marko horretan naturari imitatzen dioten hiri-urbanizazioko teknika berritzaileak aplikatzen dira, eta proiektu guztiek ingurumen-irizpideak dituzte. Garapen Jasangarriko Helburuei egindako ekarpena ebaluatzeko adierazleak ere identifikatu ziren.

2020ko maiatzaren 9

27
positibo

ZUZENDARITZA, MAIATZAREN 11

1. **Aurrekontu doikuntza**

Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren murrizketan oinarrituta egindako aurrekontu doitzea 1.402.570 €koa da, udal aurrekontu osoaren % 12,6a.

2. **Herritarren Arreta zerbitzuak berriz irekitzeko zerbitzuaren egokitzapenak**

Babes holtzak jarriko dira, babes-maskarak eta -eskularruak egongo dira, eta zoruan markak egingo dira segurtasun-distantzia zaintzeko. Garbiketa-protokoloak ezarriko dira.

Herritarrek eskuak garbitu beharko dituzte gel desinfektatzailearekin udaletxera sartzean eta handik irtetean.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan pertsona bakarra artatuko da aldiko, eta gainerakoek udaletxetik kanpo itxaron beharko dute.

3. **Gizarte Zerbitzuetan herritarren arreta berriz irekitzeko zerbitzuaren egokitzapenak**

Babes holtzak jarriko dira, babes-maskarak eta -eskularruak egongo dira, eta zoruan markak egingo dira segurtasun-distantzia zaintzeko. Garbiketa-protokoloak ezarriko dira.

Herritarren hitzordua hartu beharko dute eta udaletxetik kanpo itxaron beharko dute.

4. **Bilera gela bideokonferentziak egiteko prestatzea**

Bilera gela bilera telematikoak egin ahal izateko egokitzen ari dira

5. **Eraikinen garbiketa planifikatzea**

Udal teknikariari urte amaierara arteko garbiketa-lanen aurreikuspen plana eskatuko zaio. Hurrengo Zuzendaritza bileran aurkeztuko da plana.

6. **Terrazak**

Bi terraza ireki dira eta hirugarren jarduera batek irekitzea eskatu du.

2020ko maiatzaren 12a

1. **Probek negatibo eman dute**

Udaltzainari eta Meaztiko Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileari egindako probek negatibo eman dute.